



FEDERACION VIZCAINA DE MONTAÑA
BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOA
MARTIN BARUA PICAZA nº 27, 4ª PTA 48003 BILBAO
Tfno.: 94 443 17 34 Fax: 94 444 35 62
www.bmf-fvm.org
<https://www.facebook.com/pages/Bmf-Fvm/597553177057267>

AKTA

BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOKO BATZAR OROKOR ARRUNTA ASAMBLEA GENERAL ORDINARIA DE BMF

Bilbon, 2016ko abenduaren 13ko 19:30etan, bigarren deialdian Bizkaiko Mendizale Federazioko Batzar Orokorra eratua izan da.

Honen buru, federazioko presidentea den Víctor Vivar dugu, idazkari bezala federazioko idazkaria den Ainara Aparicio eta Dioni Perez, Ane Semusaga eta Jose Ramón Alonso Batzarkideak ere bertan dria.

BERTARATUTAKOAK:

ORDEZKARITZA ZUZENA EDO AKREDITAZIO DUTEN KLUBAK:

Sestao Alpino C, Aldatz Gora, Arroletza, Baskonia M.T, ErdellaM.T, Gallarraga, GangurenM.T, GanzabalM.T, Goiko Mendi, Osea, Alpino TabiraM.T, Goi Gain M.T, Deportivo Bilbao, ArnotegiM.T, Balmaseda M.T, Gailurra M.T, Lezama Gailur M.T, Sollube 707 Bermeo M.T, Cicloturista de Euskadi C. La Rioja, BurtotzaM.T, Lamino Kirol Kluba, Austarri Mendi Taldea, Zaldai Mendi Taldea, Untza Mendi taldea, Artarraí G.M., GanerantzM.T., Juventus S.D, SociedadMontañeraBilbao, Encartaciones eta Egunsentia,M.T.

LEGEGINTZALDI HONETARAKO HAUTESKUNDE BATZORDEAK ESKATUTAKO ORDEZKARITZA AURKEZTU EZ DUTEN KLUBAK BAINA PUNTUALKI BATZAR HONETARAKO ORDEZKATUAK IZAN DIRENAK:

Ubietamendi, Deustuko Menditarrak etaGallarreta.

KIROLARIAK:

Domingo Garcia Valerio, JoséRamón Alonso, Víctor Manuel Vivar, Txaro Iglesias, Joseba Undarraga, Roberto Mínguez y Ainara Aparicio

TECNIKOAK:

Ander Gómez

BMF-ko presidente berriak ongiatorria ematen die bertaratutakoei eta beraien presentzia eskertzen dute. Idazkariak bertaratutakoen datuei buruzko informazioa ematen die: Boto eskubidea duten 33 klub (85 boto), kirolarien 7 ordezkari (7 boto) eta teknikoen ordezkari bat (boto 1), guztira 41 kide eta 93 boto.

BATZARRAREN ERAKETA:

Aurreko datuen harira, Presidenteak ontzat ematen du batzarraren eraketa, Federazioko Estatutuetako 20. Artikuluak dioenari jarraiki.

Batzar hau Bizkaiko Mendizale Federazioko presidentek deitua izan da, BMF-ko Estatutuen 18. Artikuluak aipatzen dituen epeen barruan eta deialdian sartutako gai zerrendan datozen helburuekin, Batzar honen helburu nagusia, EMFko Batzarrerako Ordezkariek hautatzea dela adieraziz.

Bizkaiko Mendizale Federazioko azken Batzarretan erabilitako eskema berdina jarraituz, Klubetako ordezkari ofizialekin etorri diren laguntzaileei batzarrera sartzeko baimena eman zaie (klub bakoitzeko bat), nahiz eta hauek boto eskubiderik ez izan. Multzo honetan sartu dira Zutarri Klubeko ordezkari ofiziosoa, Ez duelarik ordezkaritza orokorraren ziurtagiria ezta batzar honetarako ordezkaritza aurkezten. Munarrikolandak ez du ordezkaritza ofizialik, izan ere batzarrean dagoen batzarkide kirolari baten alde

aurkeztutako ziurtagiriak, ez dio baimentzen klub bezala egitea, izan ere legalki debekatuta dago pertsona batek bi estamentu ordezkatzea.

Halaber, bere momentuan BMFko Hauteskunde Batzordeak legegintzaldi honetarako eskatutako ordezkarien izendapenen ziurtagiria aurkeztu ez duten klubei, EMFko lehen Batzarra ospatu aurretik egin beharko dutela jakinarazten zaie, izan ere, bestela, ez da ordezkari-tza hori baieztatze-ko nahiko informazio edukiko eta baliteke batzar horretara bertaratzen ez uztea.

Beste gai batzuk sartzeko eskaerarik egon ez denez eta BMFko estatutuen 19. Artikuluaren harira, deialdian bidalitako Gai Zerrenda jorratuko da.

GAI ZERRENDAKO LEHEN PUNTUA: ZUZENDARI BATZORDE BERRIAREN AURKEZPENA.

Presidenteak Zuzendaritza Batzordeko kide berriak aurkezten ditu bertaratutakoei, 2016ko azaroaren 9an Hauteskunde Batzordeak eginiko izendapenen harira. Diapositiba bat erabiliz, Zuzendaritzako kide bakoitzaren zereginak azaltzen ditu, organigrama eguneratua erakutsiz.

BIGARREN PUNTUA : 2016KO EKAINAREN 23KO BATZAR OROKOR ETA EZ OHIZKO BATZAR OROKORRAREN AKTAREN IRAKURKETA ETA ONARPENA, HORRELA IKUSTEN BADA.

Akta horiek deialdiarekin batera bidali zaizkie bertaratutakoei. Horregatik, irakurritzat ematen dira eta zuzenean bozketa egitea erabakitzen da.

Bertaratutako kide batzuek, akta horietan batzar horietara joan ziren klub batzuk ez direla aipatzen azaltzen dute, hain zuzen: Goi Gain, Galarreta, Encartaciones, Lezama Gailur, Gallarraga eta Arroletza. Presidenteak klub horien presentzia egiaztatuko duela esaten du eta horrela bada, aktan sartuko direla.

Jarraian, aurretik aipatutako salbuespenarekin eta aipatutako aktan klub horiek sartuko direla azalduz, aho batez onartzen dute.

HIRUGARREN PUNTUA : EMF HAUTESKUNDEAK ETA ORDEZKARIEN IZENDAPENA.

Batzarrari EMFko hauteskunde egutegiaren eta lurralde bakoitzak izendatu beharreko ordezkarien berri ematen zaio, EMFko Hauteskunde Batzordeak BMFri honako kide hauek izendatu dioelarik:

- Klubak eta Kirol Elkartek: 60 kide.
- Kirolariak: 7 kide.
- Teknikoak eta epaileak : 5 kide.

Klubei dagokionez, BMFn dauden guztiek zuzenean EMFko batzarreko kide izatera pasako dira, izan ere EMFko estatutuen arabera, Lurraldeetako Federazioetako kide guztiak EMFko batzarrean sartzea ahalbidetzen dute inolako mugarik gabe.

Kirolariei dagokionez, Abenduaren 7an aukeraketa horretara aurkeztutako boluntarioen berri eman zitzaizen BMFko batzarreko kideei. Aurkeztutako boluntarioak Hauteskunde Batzordeak izendatzen dituen kopuru berdina izanik ez da inolako bozketarik egin behar. Beraz zuzenean EMFko batzarreko kide izendatzen dira ondorengo ordezkariak:

- o Domingo Garcia Valerio.
- o Jose Ramon Alonso Rodrigo.
- o Ainara Aparicio Arronategi.
- o Txaro Iglesias Lareo
- o Victor Vivar Moreno
- o Joseba Undurraga Bidasolo.
- o Roberto Minguez Alonso.

Gure Batzarrean 9 kirolari daudenez, boluntario aurkeztu ez diren kirolari biak ordezeko bezala geratzen dira. Berauen ordena aukeratzeko zozketa zuzena egiten da, poltsa batean berain izenekin bi paper sartuz. Zozketak ondorengo emaitza izan du:

- Lehen ordezekoa : Hodei Castro
- Bigarren ordezekoa : Ricardo Hernani

Azkenik, Epaille eta Teknikoen estamentuari dagokionez, izendatutako ordezkarien kopurua BMFko batzarreko kideen kopurua baino handiagoa denez, eta nahiz eta boluntariorik ez izan, BMFko bi teknikoak zuzenean EMFko ordezkari izendatzen dira zuzenean:

- Ander Gómez Blanco
- Koldobika Vadillo Astika

LAUGARREN PUNTUA : KLUB BERRIEN SARRERA KUOTEN EGUNERATZEA.

2016ko martxoaren 17an ospatutako Batzar Orokorrean onartutako klubena alta eta bajei buruzko Barne Arautegiaren 3. Artikuluaren arabera, horrela gertatuko balitz, gure Federazioaren sarrera kuota berrikustea ahalbidetzen zuen. Hori dela eta, aurreko urtean adostutako zenbatekoan, ez dela inolako aldaketarik egin beharko adierazten zaio batzarrari, eta zenbateko horrek indarrean jarraitzen duela batzar honetan komunikatzen diren alderantzako eta 2017an burutzen diren alderantzako. Zenbateko hau, etorkizunean, erreferentzia bezala erabiltzen diren prezioen aldaketa gauzatu arte mantenduko da. Beraz, kuota 332.40€koa izango da.

BOSTGARREN PUNTUA : KLUB BERRIEN ALTEN KOMUNIKAZIOA.

Presidenteak, Gai Zerrendan jakinarazitako bi klub berriei, beranduago beraien dokumentazioa aurkeztu duten beste bi klub gehitu behar zaizkiela adierazten du. Bertaratutakoei, klub berriek sarrera egiten dutenean, eskakizun legal guztiak betetzen badituzte, BMF-k sarrera onartu behar dietela jakinarazten zaie, beste eskakizunik gabe. Klub berri hauen aurkezpena BMF-ko Batzar Orokorrean izango da, sarrera ofizializatzen denean.

Eskaera egin duten klubak eta Zuzendari batzordeak aztertu eta gero, eskakizun guztiak zuzen bete dituztenak honako hauek dira: Gualdetxu, Trail 52 Kluba, Egurre K3 kirol kluba eta Matxinkorta Mendi kirol elkarteak.

Datorren urterako banaka, klub bakoitzak bere helburuak azaltzera gonbidatu eta gero, zenbait klub batzarkidek bere haserrea erakusten dute azkenaldian sortzen ari diren klub berrien gorakada dela eta.

Federazioko presidenteak, beraien betebeharrak azaltzen dizkie klub berriei: lizentzien gutxienezko kopurua, ekintzak eta parte-hartze aktiboa izatea BMF-n.

SEIGARREN PUNTUA : BESTE GAI BATZUEI BURUZKO INFORMAZIOA.

a) Presidenteak kirol lizentziei buruz informatzen du. Haur mailako kirolariak nabarmentzen ditu, izan ere maila honetan gurasoen baimena jaso behar da eta federaziora bidali, hortik Aldundira bidaltzeko eta dagokion baimena emateko. Aurten, Aldiak Eskola Kiroleko legea zorrotz beteko duela jakinarazi du, beraz aldundiak baimena eman arte, haur mailako kirolari hori ez da federatuta egongo.

Klubei, haur mailako kirolarien lizentziak aparte bidaltzea eskatzen zaie. Era berean, gurasoei egoera honen berri eman behar zaie. Batzarreko kide batzuek egoera honi buruzko email informatibo bat bidaltzea eskatzen die BMF-ri.

b) Gorbeako aterpetxeari dagokionez, Aterpetxeko Batzordea guardekin batu dela jakinarazten da, hurrengo gaiak aztertzeko: prezioen gorakada, urteko balantzea (Batzarrari azaletik azaltzen zaiolarik), etab. Adostutako akordioak eta egindako ekintzak honako hauek dira:

- Neguan afarien ordutegia 20:00etara aurreratzea eta isiltasun ordua 22:00etara.
- Sukalde "industrialak" kentzea sukalde libretik eta tresneria mendiko aterpetxe baten erabilpenetara egokitzea.
- Gaua igarotzearen tarifak aldatzea, aipatzen den koadroa Federazioko web orrian eskegiko da.

- Mendizaleen zerbitzurako desfibriladore baten instalazioa, BMF-ko Zuzendaritza Batzordeak eskaturik.
- Putzu septiko berri baten instalazioa (egina dago). Bere kostua BMF-k bere gain hartua izan da.

c) Beste gai batzuei helduz, Presidenteak diruzaintzak trantsizio egoki bategitekoasmoaren berri ematen dio batzarrari, Aurreko Zuzendaritza Batzordean eginkizun hau zuen kideak eta gaur egun, kirolarien ordezkari bezala Batzar honetako kide den Txomin Garcia Valeriok, Dionisio Perez diruzain berriarekin batera, 2016ko ekitaldiaren itxieran eta bere zereginen eguneratzean lagunduko dio. Horrela aurten betetzen den hutsunea betetzen da, izan ere Zuzendaritza Batzordeko diruzain berriak parte hartu ez duen ekitaldiko itxiera egiteko ardura dauka.

d) Azkenik, BMF-ko Zuzendaritza Batzordeak Amexier Kluba zigortzea erabaki duela jakinarazten da, izan ere BMF-ko hauteskunde batzordeko kide hautatu bezala parte hartzeari uko egin dio. Zigorrak, legegintzaldi honek irauten duen lau urteetan Federazioaren partetik diru-laguntzarik ez jasotzea ekarriko du. Erabaki hau idatziz klubari jakinarazi zaio.

ZAZPIGARREN PUNTUA : ERREGUAK ETA GALDERAK.

Azkenik, hurrengo puntuekin zerikusia duten gaiak planteatzen dira: Mendi-bideen kurtsoak; Mendi ibilbideen ekintzarako Foru Aldundiaren Diru laguntza eta horretara bideratutako langileak; EMFko Batzarra, Federatutako Mendizaleei arreta Quirón Klinikari, etab.

Besterik gabe, Federazioko Presidenteak bukatutzat ematen du Batzarra, bertaratutako guztiei bere parte-hartzea eskertuz.

Stua.: Aina Aparicio
BMF Idazkaria

Stua.: Víctor Vivar
BMF Presidentea